

# UdaBerriGaldua ELKARRIZKETARAKO GIDOIA

Pertsona nagusien elkarrizketa 3 gai-multzotan antolatzen dut, izena, abizenak eta jaiotako urtea eta baserria-herria, auzoa... adierazi ondoren:



## 1. UME & GAZTE denborako GAUZAK: testuingurua

- zer gogoratzen duzu **eskola** urteetatik: maixu edo maistra, klaseko lagunak, jolasak, errekreoan...
- zure **familian** nortzuk zineten: aita, ama, nebarrebak, iseko-osabak, amama....
- **euskaraz** ala erderaz ikasi zenuen, doktrinara joan al zinen, eleizan euskaraz egiten ote zen...
- herriko plazan edo frontoian edo kaleetan zertara **jolasten** zen, bizikletan ibiltzen ote zinen, futboleak,
- ondo pasatu zenueneko momenturen bat gogoratu/kontatu

Gazte izan zirenentzat (17/18 urte edo gehiago) galdera zehatzagoak:

- nolakoa zen bere koadrila eta lagunak
- nora joaten ziren jai egunetan, oporretan
- noiz hasi zen lanean, zertan, zenbat irabazten zuen gogoratzen ote duen
- neska-lagunik edo mutil lagunik izan ote zuen

Lehen zati honek (5-10 min) **berotze komunikatiboa** du helburu: pertsona lasaitu, hitz jarria bizkortu eta estilo komunikatiboa ezagutzeko (ixilago, irekiago, bisualago, auditiboago, zer duen gustoko kontatzeko...

Bide batez, **testuingurua** ezagutzeko aukera ematen du: non eta nola bizi izan zuen bere haurtzaroa/gaztaroa.

## 2. 1.936-37KO GERTAERAK

**Pertsona horrek honenbeste (\*)** urte bete zituenean bera non zegoen galdetuz hasten da zati hau **-(\*)** da 36 ken jaio zen urtea-, galdera ireki bezala. Ondoren Gerra Zibilaren aurrekariak ezagutzeko momentuak edo garaiak aipatuz, bukaerarik gabeko esaldiak bezala utzi, elkarrizketatuak jarraitu dezan:

- 1936an ze giro zegoen herrian, ideia politikoetaz kanean hitzegiten ote zen, sindikatuak ezagutzen ote ziren, zeintzuk ziren orduko periodikuak
- Otsaileko hauteskundeak gogoratzen ote duen, botorik emateko eskubidea ote zeukan, bere familikoek eman ote zuten botoa
- Uda horretan zer komentatzen zen kaletik, militarren animoak ezagutzen ziren lehendik, Afrikako ejerzitoak,...
- Altxameduaz (**Gerreak urten dauela**) nola enteratu zen, norekin zegoen, zer komentatu zuten
- Udaletxean edo batzokian edo sindikatuen egoitzetan ze mugimendu egon zen
- Militarizatuak eta boluntarioak, milizianoak eta gudariak, ejerzitoak eta jende zibila: non zegoen bera eta bere familikoak

- frontera joatea tokatu zitzaionean, nora, norekin
- etxera itzuli zenean (baja, deskantso, erretiradan...) zer aurkitu zuen, nola sentitu zen; familikoen berri nola izan zuen
- Atzeraka joan bazina, detenitu, preso, kartzela, lan derrigortuak, zer pasatu zitzaizun?

Kontakizun hauetan momentu historikoen paralelotasuna bilatuko dugu, objetiboki ezagutzen diren "Gerrako Pasarteekin" parekatzeko.

### 3. ZER ERAKUSTIKO ZENIOKE **JENDE GAZTEARI**

Pertsona hauek egin duten ibilbide **biografikoaren** ondoren, euren sentipenak nola bideratu dituzten oso argigarria (eta eredugarria) da.

**Ezagutza** ateratzeko, honelako galdera orokor bati erantzuteko aukera ematen diegu:

- Zer erakutsiko zenioke zure ilobari, zure seme-alaben seme edo alabari, institutuko gazteei?

Animatzeko asmoarekin amamak hainbesteetan esan ohi diguten esaldiak erabili ditzakegu:

- Ai koitaduok: ez dezazuela pasa guk pasatu duguna.
- Ez dakizuela gertatu guri gertatu zitzaiguna: gerra, etxetik urten behar, familikoak/auzokoak hil, erbesteratu, gosetea...

Adibide konkretuak bilatzeko, honelako komentarioak egin daitezke:

- galeraren **sentipena**: zer galdu zuen zure familiak? ondasunak, partaideren bat (aita, ama, neba, arreba...) lasaitasuna,
- zure ustez zure gaztaroa/hautzaroa **zoriontsua** izan zen? zerbait galdu zenuela sentitu zenuen? Nola baloratzen duzu orain urte haiek?
- atsekabean **berradiskidetze haziak**: norbaitek errukitu, samurtasunez tratatu
- des-humanizazioaren barruan **humanizazio arrastoak**: etsaiak pertsona bezala ikusi
- sufrimenduaren sentipena arintzeko estrategiak: nola egin diozu aurre urte hauetan orduko sufrimenduari,

Modu zuzenean ere planteatu daiteke. Zure ustez 1937ko udaberria, **GALDUA** dela esango zenuke? Zergatik?

Modu metaforiko batean esan daiteke: Udaberri hartan, loreak ez ziren atera mendietan eta zelaietan, kanposantuetan baizik.

Asko esatea dela uste duzu?

### **ZEOZER GEHIAGO **ESAN NAHI** DUZU?**

Elkarriketaren bukaeran aukera ematen diegu, zeozzer gehiago gelditu ote zaion esan gabe, edo gogoak ote dituen zerbait adierazteko...

Kasu gehienetan zertxobait gaineratzen dute:aurreko gauzak borobiltzeko, edo ezustean, aipatu ez duten gai bat azaleratuz.